

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure zerbitzuaren antolamenduarekin hasteko, ezinbesteko jardueratan jarriko dugu arreta. Horrelakoak dira, irakasleen koordinaketa, udaletxe, unibertsitate, ikastola eta zerbitzuekiko harremana eta finantziatzea.

Lehenik eta behin irakasleen koordinazioarekin hasiko gara. Jarduera hau gauzatzeko taldeko bi pertsonak hartuko dute parte; izan ere, pertsona bat izango da horren erantzule nagusia, eta bestea ordezkoa. Erantzule nagusiak ezingo balu bere eginkizuna bete edozein arazorengatik, jarduera horretaz trebea den beste pertsona bat arduratuko litzateke. Josuk gure zerbitzua antolatuko du, izan ere, gure ustez, talde bat koordinatu ahal izateko Josuk dituen bertuteak ezinbestekoak dira. Ordezkoa berriz, Maialen izango da. Bi hauek, taldearen antolamenduaz arduratuko dira; hala nola, irakasleen asistentzia konfirmatzeaz, eguneroko lana antolatzea, arauak mantentzen direla ziurtatzea eta egutegi bat zehaztea.

Horretaz gain, Josu gure enpresaren finantziarioaz arduratuko da. Gure zerbitzuaren kontabilitatea eramango du, eta diru sarrerak iristen direla eta zerbitzua bideragarria dela ziurtatuko du.

Bigarrenik, irakasleak lortzeko hainbat unibertsitatearekin harremanetan jarri beharko gara. Hau lortzeko, pertsona batek konpromezua hartu beharko du gurekin elkarlanean ariko diren unibertsitateetara joateko eta bolondres aurkeztuko diren pertsonen elkarriketak egiteko. Ane honetaz arduratuko da. Irakasle bat hautatzeko orduan, aurreiritziak ez ditu kontuan hartuko eta bere ezaugarri eta trebetasunetan bakarrik arreta jarriko du; hala nola, zer ematen zaion ondo eta zer ez. Elkarriketak egindakoan, Anek hainbat ondorio aterako ditu eta honekin batera hausnarketa bat egingo du, gero irakasleak hautatuko ditu. Taldeko partaide guztiek bere iritzia entzun ondoren, guztien artean azken erabaki bat hartuko dugu.

Ilido beretik, herriko bi udaletxekin harreman estu bat mantenduko dugu; izan ere, gure zerbitzua herriari onurak ekar diezazkioke. Alde batetik, udalari lokala eskatuko diogu, ekonomikoki guretzat mesedegarria izateko. Gainera, etorkinei buruzko informazioa eskuragarri izango dugu. Lan honen ardura Joanesez izango du, bere trebatasun eta bertuteengatik ekintza hauek aurrera eramateko gai izango delako.

Ikastetxeei dagokionez, harreman zuzena eduki beharko dugu beraiekin, ikasleei buruzko informazioa eskuratzen baitigute. Adibidez, ikasleak zeintzuk diren, nolako izaera duten eta nola dauden esango digute. Informazio honekin guk ikasle bakoitzaren hasiera puntua zein den jakingo dugu, eta horrela klaseak produktiboagoak eta denbora aprobetxatuz egingo dira. Lan honetaz Joanes arduratuko da.

Diru laguntzak beharrezkoak izango dira gure zerbitzuarentzat; izan ere, oinarri ekonomiko bat lortzeko balio digute. Gure zerbitzua dohako da eta bizirauteko diru-laguntzak behar ditgu nahitaez. Garrantzia handikoa dela iruditzen zaigunez, eguneratuta egon gaitzen, taldeko 2 partaideren eskutan utziko dugu. Hain zuzen ere, Joanes eta Mikel arduratuko dira. Joanes oso trebea da jendea konbentzitzen eta oso baliagarria izango zaigu. Mikelek ere, argudiatzeko gaitasun handia du, eta jendea limurtzen ona da, beraz, negoziatzaile ona izango litzateke. Horretaz gain, Joanesek hainbat bilera antolatuko ditu elkarte ezberdinekin, hots, Eusko-Jaularitzarekin, enpresa pribatuekin, etab. Han, Mikelek eta Joanesek beraien burua aurkeztuko dute eta gure argudioak era ulergarri batean adieraziko dituzte. Honela, elkarteak gudan fidatzea lortuko dugu eta zerbitzu hau arrera eramatearen alde egongo dira.

Azkenik, beste atal garrantzitsu bat ikasleen familiekin ditugun harremanak izango lirateke. Honetan Maialenek hartuko du parte, hizkuntza ugari dakizkielako, hala nola frantsesa, alemana, ingelesa, gaztelera, euskera, etab. eta oso erabilgarria izango delako familieei beraien seme-alabek euskaraz egingo duten ibilbidearen berri emateko.